


NATURAREKIKO LOTURA

GIPUZKOAKO 8 ETA 12 URTE ARTEKO
BIZTANLERIAREN ARTEAN



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gnaturaldia
konekta

NATURAREKIKO LOTURA

GIPUZKOAKO 8 ETA 12 URTE ARTEKO
BIZTANLERIAREN ARTEAN

1.

NATURAREKIKO LOTURA

.....	3
Zer da naturarekin lotura izatea?.....	3
Zergatik da hain garrantzitsua haurtzaroan?.....	3
Neur al daiteke?.....	3

2.

GIPUZKOAN EGIN DEN LEHEN NEURKETA

.....	4
Zertarako?.....	4
Nola?.....	4
Inkestaren fitxa tekniko.....	5

3.

EMAITZAK

.....	7
Emaitza orokorrak.....	7
Bloke tematikoen emaitzak.....	9

4.

ONDORIOAK

.....	10
Ondorio nagusiak.....	10
Amaierako proposamena.....	10

5.

NATURAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO PROPOSAMENAK

.....	12
Haurrentzako eta helduentzako zenbait ideia.....	12

6.

JARRAI DEZAGUN NEURTZEN!

.....	13
Nola kalkulatu lotura indizea?.....	13
8 eta 12 urte arteko haurrentzako galdetegia.....	14



>> SIADECOK eginiko ikerketa – 2019ko azaroa

>> PROMETEA SC-k idatziriko testuak

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gnaturaldia
konekta

1

NATURAREKIKO LOTURA

“Pertsonak naturarekin bat eginda sentitzen badira, naturari kalte egiteko arrisku gutxiago egongo da, naturari kalte egitea, funtsean, beren buruari kalte egitea izango litzatekeelako”

Mayer and Frantz (2004)

Zer da naturarekin lotura izatea?

Zentzu zabalean, “naturarekin lotura izatea” pertsonak naturarekiko garatzen dituzten sentimendu eta jarreraren multzoa deskribatzen du. Hor sartzen dira, besteak beste, natura maitatzea, haren handitasunak liluratzea eta hura zaintzea.



Naturarekiko lotura natura maitatzearekin eta hura zaintzearekin lotuta dago

Zergatik da hain garrantzitsua haurtzaroan?

Hainbat ikerketek frogatu dute haurtzaroan naturarekin harremana izatea eragin positiboak dituela haurren hezkuntzan, osasun fisikoan, ongizate emozionalean eta trebetasun pertsonal eta sozialetan.

Naturarekiko loturak herritar arduratsu bihurtzen laguntzen die: naturarekin harremanetan badaude, litekeena da ingurumenarekiko interesa piztea eta natura zaintzeko eta kontserbatzeko eta naturaz gozatzeko jardueretan parte hartzea.



Naturarekin harremanetan egoteak eragin positiboak ditu haurtzaroan eta pertsona gisa garatzen diren bitartean

Neur al daiteke?

Erresuma Batuko Hegaztien Babeserako Errege Elkarteak eta Essex Unibertsitateak esparru bat zehaztu dute gaur egungo haurrek naturarekiko duten lotura neurtzeko.

Haurren 4 sentimendu eta jarrera aztertzean oinarritzen da

- Naturaz gozatzea
- Animaliekiko enpatia
- Naturarekiko identitate-sentimendua
- Naturarekiko erantzunkizun-sentimendua



Naturarekiko lotura neurtu egin daiteke

2

GIPUZKOAN EGIN DEN LEHEN NEURKETA

“Haurtzaroan, ingurumen esperientziek eta naturarekiko harremanek ikaragarritzko garrantzia dute haurren garapena, osasun mentala eta ongizate pertsonala eta soziala sustatzeko orduan; ikerketa ugari dago hori egiaztatzen duena”

Erresuma Batuko Hegaztien Babeserako Errege Elkarteak

Zertarako?

Gipuzkoa Naturaldiak, besteak beste, naturarekin eta ingurumenarekin lotutako kalitatezko edukien zabalkunde lana egiten du. Helburua da gipuzkoarrak naturarekin harremanetan jartzea eta harreman hori noizbait izan zuen jendea berriz erakartzea.



Gipuzkoa Naturaldia jardunaldien helburua da gipuzkoarrak naturarekin harremanetan jartzea eta harreman hori noizbait izan zutenak berriz erakartzea

Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek naturarekiko duten lotura aztertzea garrantzitsua da jakiteko zein den abiapuntua, izan ere:

- Neska-mutilek natura behar dute: zenbat eta harreman estuagoa izan naturarekin, orduan eta onura gehiago beren ongizaterako eta garapenerako.
- Gizartearentzat beharrezkoa da haurrek naturarekiko lotura sentitzea, bihar-etzi haurrek egingo dituzten jarduerak ingurunearen egoeran eta planteatzen diren erronketan eragina izango dute-eta.



Haurrek natura behar dute eta gizarteak naturarekin lotutako haurrak behar ditu

Nola?

Gipuzkoan egindako ikerketa Hegaztien Babeserako Errege Elkarteak eta Essexeko Unibertsitateak Erresuma Batuan egindako ikerketan oinarritu da.

Lehen aldiz, Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko 1.860 ikasleren lagin adierazgarri bati inkesta bat egin zaio; eta 16 baieztapen edo itemi buruz galdetu zaie, orain arte egindako ikerketek zehaztutako esparruaren arabera, item horiek naturarekiko lotura adierazten baitute.



Erresuma Batuko ereduari jarraituz, Gipuzkoan 1.860 inkesta egin zaizkie 8 eta 12 urteko neska-mutilei



1.860

INKESTA



8-12

URTE



22

IKASTETXE




89

IKASGELA

INKESTAREN FITXA TEKNIKOA

Guztira 1.860 inkesta egin zaizkie
Gipuzkoako 8 eta 12 bitarteko
ikasleei:


- Lurraldeko 22 ikastetxetako (publikoak eta itunduak) 89 ikasgelatan.
- Eskualdeka banatuta: Bidasoa Behera, Debagoiena, Donostialdea, Goierri, Tolosaldea, Urola Kosta, Urola Garaia eta Debabarrena.
- Bizi den udalerriko biztanleriaren tamainaren arabera.




» Errore-marjina estatistikoa
± % 2,25ekoa da, % 95,5eko konfiantza-tarterako

Datu batzuk:


SEXUAREN ARABERA



IKASMAILAREN ARABERA



HERRIAREN TAMAINAREN ARABERA





GALDETEGIA

16 esaldiko zerrenda bat da, guztiak naturarekiko harremanari buruzkoak, 4 bloke tematikotan banatuta:

1. Naturaz gozatzea

Naturan soinu ezberdinak entzutea gustatzen zait

Naturan basaloreak ikustea gustatzen zait

Triste nagoenean kanpora irten eta naturaz gozatzea gustatzen zait

Inguru natural batean egoteak bakea sentiarazten dit

Lorezaintza gustatzen zait

Oskolak eta harriak biltzea dibertigarria da

Aire librean egoteak zoriontsu egiten nau ⁽¹⁾

2. Animaliekiko enpatia

Triste sentitzen naiz animaliek sufritzen dutenean edo erasotuak direnean

Animalia basatiak leku garbietan bizitzen ikustea gustatzen zait

Animaliak eta landareak ukitzen gozatzen dut

Niretzat animaliak zaintzea garrantzitsua da

3. Naturarekiko identitate-sentimendua

Pertsonak naturaren parte dira

Ezin dugu animalia edota landarerik gabe bizi

Aire librean egoteak zoriontsu egiten nau ⁽¹⁾

4. Naturarekiko erantzunkizun-sentimendua

Badakit nik egiten dudanak eragina daukala naturan

Lurretik zaborra jasotzeak ingurumenari lagundu diezaioke

Pertsonok ez dugu natura kaltetzeko eskubiderik

(1) Galdera-item hau bi eskalatan agertzen den arren, behin bakarrik galdetu da.

Galdetegian ikasleek item bakoitzari buruzko adostasun maila adierazi behar dute 5 mailen artean aukeratuta:

ERABAT KONTRA	KONTRA	EZ ADOS EZ KONTRA	ADOS	ERABAT ADOS
-2	-1	0	+1	+2

Gainera, eskalako maila bakoitzaren ondoan emotikono bat ageri da, errazago egin dezaten aukeraketa.



3

EMAITZAK

“Haurrek naturari eta biodibertsitateari buruz duten ezagutza gutxitzen ari da, eta, aldi berean, ezinbestekoa da etorkizuneko belaunaldiak kontzienteago eta konprometituago izatea, naturaren eta biodibertsitatearen galera gelditzeko. Gure seme-alabak etorkizunean planetaren zaintzaile izan daitezen hezi behar ditugu; horregatik, gaur behar duten ezagutza eman behar diegu, bihar-etzi natura zain dezaten”


Ahmed Djoghlaif dk.,

Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Konbentzioko idazkari nagusia

Emaitza orokorrak

Datuek adierazten dute Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilen naturarekiko lotura indize orokorra 1,42koa dela.

1,42




Naturarekiko lotura indize orokorra 1,42 da



1,5 erreferentzia balioa da

Oro har, 1,5eko puntuazioak naturarekiko lotura maila egokia eta nahikoa sendoa adierazten du, eta, gainera, balio errealista eta lorgarria da haur bakoitzarentzat.

Gipuzkoan neska-mutilen % 53,2k gainditzen dute 1,5eko indizea.



Gainera, Gipuzkoako emaitzek honako hau adierazten dute:

- Neskek mutilek baino naturarekiko lotura indize orokorra handiagoa dute.
- Adina handitzen doazen heinean, murriztuz doa naturarekiko lotura indize orokorra.
- Tamaina handiagoko eta hiri-izaera handiagoa duten herrietan bizi direnen artean, naturarekiko lotura indize orokorrak behera egiten du –batez ere, 25.000 biztanletik gorakoetan–.
- Mendira eta hondartzara maizago joaten diren pertsonen lotura indizea handiagoa da, batez ere mendira maizago joaten diren pertsonen artean.



» Neskek naturarekiko lotura handiagoa dute

» Harreman hori txikiagoa da hiri ingurunean bizi diren neska-mutilen artean

» Mendira sarri joateak sendotu egiten du harreman hori

Bloke tematikoen emaitzak

Emaitzak begiratzuz gero ikusten da aldea dagoela teorian naturarekiko duten sentsibilitatearen eta benetan naturaz gozatzearen artean.


BLOKE TEMATIKOEN
LOTURA INDIZEAK

	1. Naturaz gozatzea	2. Animaliekiko enpatia	3. Naturarekiko identitate- sentimendua	4. Naturarekiko erantzunkizun- sentimendua	Orokorra
Lotura indizea	1,21	1,53	1,56	1,60	1,42
1,5 edo indize altuagoa duen %	% 36,2	% 71,9	% 64,3	% 70,1	% 53,2

Lotura mailarik handienak -1,8 inguruko puntuazioa- kontzeptu generiko hauei buruzkoak dira: "Lurretik zaborra jasotzeak ingurumenari lagundu diezaioke"; "ezin dugu animalia edota landarerik gabe bizi"; "Niretzat animaliak zaintzea garrantzitsua da".

Konexio-maila txikiena duten itemak -1,2tik beherako balioak- benetako gozamenarekin lotuta daude; hau da, zuzeneko harremanarekin: "Triste nagoenean kanpora irten eta naturaz gozatzea gustatzen zait"; "Lorezaintza gustatzen zait"; "Oskolak eta harriak biltzea dibertigarria da".

ESALDIEN LOTURA INDIZEAK



4

ONDORIOAK

“Naturarekin harreman estua duten hurrek aukera gehiago dute ingurunearekiko interesa izateko; inguruneaz gozatu eta salbatu egin nahiko dute, bai gaur egun eta bai etorkizunean”

Chen-Hsuan eta Monroe (2012)

**Ondorio nagusiak**

1,5eko puntuazioak naturarekiko lotura maila egokia eta nahikoa sendoa adierazten du, eta, gainera, balio errealista eta lorgarria da haur bakoitzarentzat.

Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko haurren naturarekiko lotura indize orokorra 1,42koa da. Balio horrek naturarekiko lotura nahiko sendoa dela adierazten badu ere, honako hau ikus daiteke:

- Badirudi balio hori hurrek naturarekin duten harremanaren ikaskuntza teorikoan oinarrituta dagoela, eta ez gozameneari eta bizipenari.
- Baliteke egungo lotura indize orokorra ez izatea nahikoa etorkizunean Gipuzkoako hurrek naturarekin benetako konpromisoa eta inplikazioa izatea bermatuko duen kontzientzia hartzeko.



1,42ko indizeak lotura nahiko sendoa adierazten duen arren, oraindik bide luzea dugu egiteko


Amaierako proposamena

Azterketak agerian uzten du beharrezkoa dela Gipuzkoako hurrek naturarekin harreman zuzena eta pertsonala izatea. Harreman hori lehen urratsa da naturarekiko gozamena arlo guztietan areagotzeko: landareak, animaliak, basoak, mendiak, ibaiak, hondartzak, paisaiak eta abar.

Elkarri lotutako sistema batean, norberaren gozamena eta gogobetetasuna areagotzeko naturarekiko lotura sendotuko du eta baita gainerako sentimenduak eta jarrerak ere.



Lehenengo urratsa da Gipuzkoako hurrek naturarekin harreman zuzena eta pertsonala izan dezaten sustatzea



Horrela, 4 irizpide proposatzen dira Gipuzkoako neska-mutilek naturarekiko duten lotura sustatzeko ekintzak planifikatzeko.

Hauetara dira:

- Aztertzea haurrek zergatik duten harreman gutxiago naturarekin.
- Jarduera motibatzailea indartzea adinean eta maila akademikoan aurrera egin ahala.
- Hiri inguruneetan –25.000 biztanletik gorako hirietan– bizi diren haurrei arreta berezia jartzea.
- Naturarekiko harreman zuzena eta pertsonala sustatzea, goatzeko asmoz egiten dena, bereziki mendirako irteerak.



Gipuzkoako haurren naturarekiko lotura sustatuko duten jarduerak planifikatzeko irizpideak

5

“Erori, lokatzez
zikindu edo landan
jolasten duten haurrek
trebetasun gehiago
izango dute hazten
direnean bizitzari
aurre egiteko”

Richard Louv (2017)

NATURAREKIN HARREMANETAN
JARTZEKO PROPOSAMENAK

HAURRENTZAKO ETA HELDUENTZAKO ZENBAIT IDEIA

**Gipuzkoa Naturaldiak
hainbat tokitan naturarekin
bat egiteko ideiak eta
proposamenak
bildu ditu.**

**Etxean:**

- Naturari buruzko liburuak irakurtzea
- Naturari buruzko filmak eta dokumentalak ikustea familiarekin
- Naturarekin zerikusia duten soinuak eta musika entzuten gozatzea
- Naturari buruzko gauzak ikasiz margotzea eta jolastea
- Balkoian lorategi txiki bat jartzea eta landareak zaintzea
- Animalia bat zaintzea

**Hiri
ingurunean:**

- Zure etxetik hurbil dagoen parke batera joan eta zuhaitz bat besarkatzea
- Oinutsik ibiltzea parke batean, belar gainean, edo, kostaldean biziz gero, hondartzan
- Aire librean ariketa fisikoa egitea
- Naturarekin zerikusia duten tailer eta jardueretan parte hartzea
- Zure inguruan dituzun zuhaitzen eta hegaztien izenak ikustea
- Zerua behatzea, gauez zein egunez
- Ingurumenari buruzko interpretazio zentro edo ekipamendu bat bisitatzea

**Naturan:**

- Mendian ibili eta askatasunez jolas egitea: makilak hartu, hostoak bildu...
- Naturagune batera joatea eta interpretazio zentroa ikustea
- Animalia eta landare espezieak (hegaztiak, narrastiak, ugaztunak, arrainak, landareak, zuhaitzak...) behatzea eta horiei buruzko gauzak ikustea
- Eguna argitzen edo iluntzen ikustea, isiltasunean eta konpainia onean
- Natura ingurunean argazkiak ateratzea
- Burura etortzen zaizun guztia, betiere, natura errespetatuz eta zainduz

**Argibide gehiago, hemen:****>> gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta**

6

JARRAI DEZAGUN NEURTZEN!

“XXI. mendea
naturara itzuliko garen
mendea izango da”

Richard Louv (2017)

Lehen azterlan horren emaitzetatik abiatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak lanean jarraitu nahi du Gipuzkoako haurrek naturarekiko duten lotura areagotzeko eta neurtzeko.

Aukera bat izan daiteke inkesta 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak dauden beste ikastetxe, entitate eta familia batzuetara zabaltzea.



Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko beste neska-mutil batzuei ere egin dakieke inkesta

Nola kalkulatu lotura indizea?

8 eta 12 urte bitarteko neska-mutil batek naturarekiko duen lotura neurtzea erraza da. Hona hemen pausoz pauso:

Banakako neurriak

Egin beharreko urratsak:

1. Bete aurrerago aurkituko duzun galdetegia.
2. Zenbatu zenbat aldiz klikatu duzun aukera bakoitza galdetegi osoan: erabat ados; ados; ez ados, ez kontra; kontra eta guztiz kontra.
3. Informazio horrekin, bete ezazu taula hau, adibideari jarraituz.
3. zutabea bete (klik kopurua) eta 4. zutabeko kalkuluak egin; hori besterik ez duzu egin behar. Hori eginda daukazunean, lotura indizea kalkulatu ahal izango duzu.

AUKERA	Balorazioa (A)	Klik kopurua (B)	Lortutako puntuazioa (AxB)
Erabat ados	+2	10	+20
Ados	+1	3	+3
Ez ados, ez kontra	0	1	0
Kontra	-1	1	-1
Erabat kontra	-2	1	-2
Guztira			20
LOTURA INDIZEA = Balio osoa zati 16			1,25

Neurketa kolektiboa

Inkesta talde edo gela batean ere egin daiteke; eta kalkulatzeko modua banakako neurketaren antzekoa da.

Gainera, lortutako emaitzak partekatu nahi izanez gero, mezu bat bidal daiteke helbide honetara: **ingurumenzuzendaritza@gipuzkoa.eus**

8 eta 12 urte arteko haurrentzako galdetegia

Markatu X batekin zenbateraino zauden erabat ados, ados, ez ados ez kontra, kontra edo erabat kontra hurrengo esaldiekin:



	ERABAT ADOS	ADOS	EZ ADOS, EZ KONTRA	KONTRA	ERABAT KONTRA
 Naturan soinu ezberdinak entzutea gustatzen zait	5	4	3	2	1
 Naturan basaloreak ikustea gustatzen zait	5	4	3	2	1
 Triste nagoenean kanpora irten eta naturaz gozatzea gustatzen zait	5	4	3	2	1
 Inguru natural batean egoteak bakea sentiarazten dit	5	4	3	2	1
 Lorezaintza gustatzen zait	5	4	3	2	1
 Oskolak eta harciak biltzea dibertigarria da	5	4	3	2	1
 Triste sentitzen naiz animaliek sufritzen dutenean edo erasotuak direnean	5	4	3	2	1
 Animalia basatiak leku garbietan bizitzen ikustea gustatzen zait	5	4	3	2	1
 Animaliak eta landareak ukitzen gozatzen dut	5	4	3	2	1
 Niretzat animaliak zaintzea garrantzitsua da	5	4	3	2	1
 Pertsonak naturaren parte dira	5	4	3	2	1
 Ezin dugu animalia edota landararik gabe bizi	5	4	3	2	1
 Aire librean egoteak zoriontsu egiten nau	5	4	3	2	1
 Badakit nik egiten dudanak eragina daukala naturan	5	4	3	2	1
 Lurretik zaborra jasotzeak ingurumenari lagundu dakioke	5	4	3	2	1
 Pertsonok ez dugu natura kaltetzeko eskubiderika	5	4	3	2	1

